

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Alkate-udalburuaren eginkizunak lehenengo alkateordeari eskuordetzea, 2025eko uztailaren 14tik 18ra, biak barne

2023ko ekainaren 20an, 1102 zenbakidun alkate-udalburuaren dekretua onartu zen, alkateordeak izendatzeko. Ondoren, aldatu egin zen, alkate-udalburuaren 2024ko ekainaren 19ko 0984 Dekretuaren bidez, eta 2025eko ekainaren 30ko 1103 Dekretuaren bidez.

Haien zereginak izango dira, besteak beste, alkate-udalburuaren ordezkoko gisa jardutea alkate-udalburuaren zeregin guztiei dagokienez titularra ez dagoen kasu zehatz batzuetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.3 artikuluan nahiz Udal Araudi Organikoko 32. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Udal Araudi Organikokoaren 32.1. artikuluko 2. Paragrafoaren arabera, beharrezkoa da alkate-udalburuak dekretuz ebaztea alkateordea bere ordezkari izatea alkate-udalburuaren zereginetan, salbu eta hori ebazteko aurreikusi gabeko ezintasun egoeraren edo kasuren batean balego.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1985/7ko Legearen 21. artikulua emandako ahalmenak erabiliz, alkate-udalburuak hau

EBATZI DU

LEHENA. Lehenengo alkateorde Iñigo Martínez Cerrillori eskuordetzea alkate-udalburuari dagozkion zeregin guztiak 2025eko uztailaren 14tik 18ra, biak barne, udal araudi organikokoaren 33. artikuluan erabakitako mugapenekin.

Ebazpen honen arrazoia da alkate-udalburuaren absentsia aipatu den epe horretan.

BIGARRENA. Jakinaraztea erabaki hau udal arloei eta izapidetzeari ekitea azaroaren 28ko 2568/86 Errege Dekretuaren, Toki Erakundearen Organizazio, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoaren 44. eta 46. artikuluetan erabakitakoarekin bat.

Laudio, 2025eko uztailaren 2a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ